

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

134/2017 Foru Agindua, apirilaren 7koa, arautzen dituen aparteko neurriak ehiza espezieak kontrolatzeko Arabako lurralde historikoan

Ohikoa da zenbait ehiza espeziek, nola larrikoak hala xehekoak, kalteak egin ditzatela nekazaritzan, abeltzaintzan eta basoetan, sortzen dituzten trafiko istripuez gain.

Ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko natura babestekoak, 57. artikuluan; martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, ehizarenak, 34.4 b eta 34.5 artikuluetan; ekainaren 14ko 8/2004 Foru Aginduak, Arabako lurralde historikoaren ehizarenak, 27. artikuluan; eta uztailaren 14ko 231/2016 Foru Aginduak, 2016-2017 denboraldirako Arabako lurralde historikoko ehiza jardueraren berriazko xedapenak arautzen dituenak, 4. artikuluan ezarritakoak ahalbidetzen du hainbat kontrol neurri hartzea, berez ohiko ehiza praktika izan gabe, espezie horiek kontrolatzeko jarduerak baitira, eragindako kalteak gutxitzeko helburu nagusiarekin.

Horregatik guztiagatik, neurri horiek homologatu eta arautze aldera, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hainbat neurri finkatzea, arautzeko Arabako lurralde historikoan kalteak sortarazten dituzten ehiza espezieak behar bezala kontrolatzen direla.

A. KONTROLPEAN GERATUKO DIREN ESPEZIEAK:

Kontrolpean geratuko dira Arabako lurralde historikoan ehiza espezie diren guztiak.

B. KONTROL NEURRIAK:

1. Ehiza larria: oreina, orkatza eta basurdea.

1.1 Baimendutako kontrol neurri dira itxarroteak, uxaldiak txakurrekin eta armarik gabe, kakoak eta bizirik harrapatzea.

1.2 Neurri horien indarraldia izango da urte osoa itxarroteetarako, txakurrekin eta armarik gabeko uxaldietarako eta bizirik harrapatzeko; martxotik abuztura (biak barne), kakoetarako, ehiza esparruetan oro har; eta urte osoa uxaldiko ehiza aprobetxamendurik ez daukaten esparruetarako.

1.3 Hautatzen den kontrol neurrirako baimen eskaera idatziz egin beharko du kasuan kasuko ehiza esparruko pertsona edo erakunde esleipendunak eta, esparrurik ez badago, lurren erakunde titularrak.

1.4 Eskaerak nahitaez jaso beharko ditu eskaeraren txosten tekniko justifikatiboa, kontrol neurria egin nahi den eguna edo egunak, eta leku zehatza, UTM (ETRS 1989) koordenatu geografikoak jarrita.

1.5 Ehiza eta arrantza basozaintzak in situ egiaztatuko du kalteak daudela kontrol neurria eskatu deneko eskaerari dagokion esparruan edo lurrean.

1.6 Baimen daitezkeen elementu dira su armak, uztaia, kaiolak, txakurrak eta foku eramangarriak. Kaiola-tranpak erabiltzen badira, pertsona edo erakunde eskatzaileak bi arduradun zuzen izendatu beharko ditu gehienez ere, eguneroko berrikuspena eta kontrola egiteko.

1.7 Baimenaren balioa hamabost egunekoa izango da, baimena ematen den egunetik, eta luzatu ahal izango da, kalteek badiraute.

1.8 Segurtasuna eta eraginkortasuna bermatzeko, baimentzen da foku eramangarriak erabiltzea gaueko itxaroteetan.

1.9 Kakoak erabiltzeko baldintzak dira: bakarrik bi jardunalditan, baimenaldiaren barruan; 09:00etatik 12:00etara; gehienez ere, 5 ha-ko esparruaren barruan; gutxienez 5 eta gehienez 10 uxatzaile-ehiztari; eta gutxienez 4 eta gehienez 10 txakur. Kakoak erabiltzen denean, nahitaezko izango da esparruko basozaintza ofiziala bertan egotea. Kakoak erabiltzen diren bitartean, basurdeak uxaldian ehizatze finkatuta dauden segurtasun baldintza guztiak bete beharko dira, bereziki, txalekoak erabiltzeari eta uxaldia egingo den zona seinaleztatzeari dagozkienak.

1.10 Baimenaldia amaituta, gehienez ere hamar eguneko epearen barruan, pertsona edo erakunde eskatzaileak horretarako emandako inprimakia, behar bezala beteta, aurkeztu beharko du Mendi Zerbitzuan.

2. Azeria:

2.1 Lehentasunez baimenduko den kontrol neurria da gaueko kontrola su armarekin, ibilgailutik eta foku eramangarriekin. Bigarren mailako metodoak izango dira itxarroteak eta bizirik harrapatzeak.

2.2 Oro har, neurri horien indarraldia urte osoa izango da, martxoaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean izan ezik.

2.3 Hautatzen den kontrol neurrirako baimen eskaera idatziz egin beharko du kasuan kasuko ehiza esparruko pertsona edo erakunde esleipendunak eta, esparrurik ez badago, lurren erakunde titularrak.

2.4 Eskaerak nahitaez jaso beharko ditu eskaeraren txosten tekniko justifikatiboa, kontrol neurria egin nahi den eguna edo egunak, eta leku zehatza, UTM (ETRS 1989) koordenatu geografikoak jasota. Gehieneko harrapakin kopurua ere jarri beharko da.

2.5 Baimen daitezkeen elementu dira su armak, ahozko apeuak eta apeu elektronikoak, Wisconsin motako lakioak eta kaiola-tranpak.

2.6 Baimenaren balioa hamabost egunekoa izango da, baimena ematen den egunetik, eta luzatu ahal izango da, finkatutako kupoa lortzen ez bada.

2.7 Gaueko kontrola bakar-bakarrik egingo du esparruko basozaintza partikularrak. Apeuak, lakioak eta kaiola-tranpak erabiltzen badira, pertsona edo erakunde eskatzaileak bi arduradun zuzen izendatu beharko du gehienez ere, eguneroko berrikuspena eta kontrola egiteko.

2.8 Baimenaldia amaituta, gehienez ere hamar eguneko epearen barruan, pertsona edo erakunde eskatzaileak horretarako emandako inprimakia, behar bezala beteta, aurkeztu beharko du Mendi Zerbitzuan.

3. Belabelta eta mika:

3.1 Baimendu daitezkeen kontrol neurriak dira kaiola-tranpak, itxarroteak eta harrapatzea ehiza hegaztien bidez.

3.2 Oro har, indarraldia urte osoa izango da, martxoaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean izan ezik.

3.3 Kontrol neurrirako baimen eskaera idatziz egin beharko du kasuan kasuko ehiza esparruko pertsona edo erakunde esleipendunak eta, esparrurik ez badago, lurren erakunde titularrak.

3.4 Eskaerak nahitaez jaso beharko ditu eskaeraren txosten tekniko justifikatiboa, kontrol neurria egin nahi den eguna edo egunak, eta leku zehatza, UTM (ETRS 1989) koordenatu geografikoak jasota. Gehieneko harrapakin kopurua ere jarri beharko da.

3.5 Baimen daitezkeen elementu dira apeuak (bizirik kaiola-tranpetan, ahozkoak eta elektrotikoak), su armak eta ehiza hegaziak.

3.6 Baimenaren balioa hamabost egunekoa izango da, baimena ematen den egunetik, eta luzatu ahal izango da, finkatutako ale kupoa harrapatzen ez bada.

3.7 Gehienez ere, bi pertsona baimenduko dira esparru bakoitzeko. Kaiola-tranpak eta apeuak erabiltzen badira, pertsona edo erakunde eskatzaileak bi arduradun zuzen izendatu beharko du gehienez ere, eguneroko berrikuspena eta kontrola egiteko.

3.8 Baimen aldia amaituta, gehienez ere hamar eguneko epearen barruan, pertsona edo erakunde eskatzaileak horretarako emandako inprimakia, behar bezala beteta, aurkeztu beharko du Mendi Zerbitzuan.

4. Untxia:

4.1 Baimen daitezkeen kontrol neurriak dira bizirik harrapatzea hudoz, birpopulatzeko edo lekuz aldatzeko; ehiza saltoan hudoz; eta itxarroteak.

4.2 Oro har, indarraldia urte osoa izango da, martxoaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean izan ezik.

4.3 Kontrol neurrirako baimen eskaera idatziz egin beharko du kasuan kasuko ehiza esparruko pertsona edo erakunde esleipendunak eta, esparrurik ez badago, lurren erakunde titularrak.

4.4 Eskaerak nahitaez jaso beharko ditu eskaeraren txosten tekniko justifikatiboa, kontrol neurria egin nahi den eguna edo egunak, eta leku zehatza, UTM (ETRS 1989) koordenatu geografikoak jasota. Gehieneko harrapakin kopurua ere jarri beharko da. Aleak birpopulatu edo lekuz aldatu nahi bada, aurretik Mendi Zerbitzuaren baimena eduki beharko da.

4.5 Baimen daitezkeen elementu dira hudoak, kaiolak, sareak eta su armak.

4.6 Baimenaren balioa hilabetekoa izango da eta luzatu ahal izango da, finkatutako ale kupoa harrapatzen ez bada.

4.7 Gehienez ere hiru ehiztari baimenduko da, eta hiru txakur erabilitako hudo bakoitzeko. Txaleko koloretsuak eraman beharko dituzte ehiztariak. Bizirik harrapatzeko kaiolak erabiltzen badira, esparruak bi arduradun zuzen izendatu beharko du gehienez ere, eguneroko berrikuspena eta kontrola egiteko.

4.8 Baimen aldia amaituta, gehienez ere hamar eguneko epearen barruan, pertsona edo erakunde eskatzaileak horretarako emandako inprimakia, behar bezala beteta, aurkeztu beharko du Mendi Zerbitzuan.

C. ALEAK ASKATZEA:

Harrapatzeko baimenik ez den espezieren bateko animaliarik gura ez dela harrapatzen bada, berehala askatuko da, hari inongo kalterik egin gabe.

D. HILTZEKO MODUAK:

Bizirik harrapatu eta hil behar diren animaliak ahalik eta min gutxien eginez hilko dira, sufriarazi gabe.

E. BESTE ESPEZIE BATZUK:

1. Beste ehiza espezie batzuk kontrolatzeko neurriak, hala nola usoak eta arabazozo pikartak, urte osoan erabili ahal izango dira su armaz edo bizirik harrapatuta arte kaiola-tranpaz, baldin eta egiaztatzen badu arrantza eta ehiza basozaintzak kalteak eragin direla.

2. Baimen horiek egiaztatutako kalteen ezaugarrien arabera izapidetuko dira, bereziki.

F. ARAU HAUSTEAK: Foru agindu honetako arauak hausten badira, martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, ehizarenak; ekainaren 14ko 8/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ehizarenak; eta Arabako Lurralde Historikoan ehizan jarduteko arau zehatzak arautzen dituzten foru aginduek ezarritakoaren arabera ezarriko dira zehapenak.

Bigarrena. Oro har, ehiza esparruren batek baimena izan dezan debekualdian ehiza espezieren baten populazio kontrola egiteko, espezie horren ehiza aprobetxamendu egokia egin beharko izan du ehiza garaian. Hala egin ez bada, kontrol neurrien eskaeran arrazoitu egin beharko da zergatik egin ez zen.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da martxoaren 4ko 82/2016 Foru Agindua, arautzen dituen aparteko neurriak ehiza espezieak kontrolatzeko Arabako lurralde historikoan.

AZKEN XEDAPENA. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 7a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
MARIA ASUNCION QUINTANA URIARTE